



hartutako erabakiaz damutu direnik. “Dibertitzera etorri gara eta oso ondo ari gara pasatzen”, zioen Mari Karmen Etxabek. Iritzi berbera zuen Luisa Mari Aristondok: “Oso giro ona dago. Igartzen da beraiek ere oso elkartuta daudela eta gustura ari direla lanean. Elkartasun hori transmititu egiten digute”.

“Gozamena da!”, dio azkar Enekok aktore hauen parte hartzea komentatu zaionean. “Errodaje batean aktoreei ordutegi bat ematen zaie, eta hor azaltzen da zer egunetan eta ordutan agertu behar duten. Zuzendari laguntzaileari exijitu nion aktore hauei ere ordutegi hauek jartzeko. Behin lana bukatu zutenean, emakume batzuei esan genien libre zeudela eta igandean ez zutela etorri beharrik. Hala ere, hurrengo egunean kafea hartzeko geratu eta denak agertu ziren. Baita laguntzen ibili den Pili Egiguren ere. Hura ere asteburu osoan izan da errodaJean”.

Argia ikusiko ote?

Korridorez aldatu dute, baina horko argiarekin ez daude gustura. Produksioaz arduratzen den Ainitzek lasterka batean jaitsi ditu eskailera behoko solairutik lanpara bat igotzeko. Argi gehiagorekin probak egin ondoren, Enekok galdera luzatu die: “Zer duzue nahiago? Argi gehiagorekin edo gutxiagorekin?”. Lanpara berri horrek itzalak sortzen ditu hormetan eta ez dira zinegile gazteen gogokoak. Argi gutxiagoko aukerak irabazi du.

Egun gutxi barru bukatuko da ikastaroa eta horrekin batera amaitutzat emango dute film laburra. Enekoren esanetan, “denak du hasiera eta bukaera. Proiektu honen asmoa ez da ezer zoragarria sortzea. Agian norbaitek hartu eta biribilduko du, baina ez dut uste hala izango denik; ziur aski, landu gabe geratuko den zerbaite izango da”.

Baina pelikula hau ikusteko aukerarik izango al da? “Taldean Azeptia eta Azkoitiko jendea dago eta badakit hango zine klubetan emango dela. Dударik gabe, proiektuan parte hartu duten guztiei erakutsiko zaie. Bestela izango ote den ikusteko aukerarik? Ez dakit”. “Zumaian erakutsiko den? Ikusi behar ko da zer ateratzen den. Lotsatzeko moduko zerbaite ez bada, agian”, esanaz agurtu da *Tote*. ■

Oztopoz betetako mundua

Elkarrizketan Eneko Dorronsorok adieraz duenez, herrian zinearen inguruan sumatu duen mugimendua izan da ikastaroa ematera bultzatu duen faktore bat. Horren adibide dira zenbait zine jaialditan sarituak izan diren Iñigo Garcia (*Clark eta Boris* eta *Berde*—azken hau Jose Luis Barredorekin batera zuzendutakoa—) edota Roberto Fuentes (*Jarriko da eta Aleluia!*), besteak beste.

Herritarrei dagokienez, ikus-entzunezkoen munduan pauso handienak Alberto J. Gorritibereak eman ditu. *Eutsi!* film luzearen zuzendariak argi dauka zaila dela mundu honetan sartzea eta bidea oztopoz beteta dagoela. “Zinerako ditudan proiektuak ateratzea oso zaila egin zait eta bitartean toki askotan lan egin behar izan dut bizi ahal izateko: publizitatean, telebistan edota zine jaialdiak antolatzen. Oso zaila da mundu horretan egotea, asko gara eta amets berberak ditugunak eta gutxi aurrera ateratzen diren proiektuak”. Orain urte batzuk bere ametsetako bat betetzeko aukera izan zuen *Eutsi!* pelikula zuzentzea eskaini ziotenean. “Telebistatik etorritako enkargu bat zen eta aukera eman zidan zine munduan lan egin eta ikasteko”. Lehen luzemetraia egin eta gero, bi dokumental errodatu ditu, azkena Asier Hilario geologoarekin batera: *Flysch: haitzen hitza*. “Ikus-entzunezkoen munduan genero guztiak ditut gogoko eta une horretan zerbaitean sartzeko beharra nuen”. Aurretik Jorge Oteiza artistari buruzko beste film bat grabatu zuen: *1908-2008 y sigo*, Guggenheim museoa antolatu duen ziklo baterako aukeratua izan dena.



Ezkerretik eskubira, goitik behera, Berde, Eutsi!, Aleluia! eta Clark eta Boris filmen fotogramakj

Abenduan estreinatu eta gero, bere ibilbidea ari da egiten flyschari buruzko pelikula. Albertok beste proiektu batzuk ditu orain esku artean. “Badituz harriak alde batera uzteko gogo. Une honetan proiektu batzuekin ari naiz lanean, baina oraindik goizegi da iragartzeko. Hori bai, zinean zerbaite egiteko itxaropena badut eta sortu dugun Tuntuxa irudi fabrika honetan proiektu berriak gauzatzeko”.